

## Ibon Aranberrik *Itzal marra* interbentzioa aurkeztu du Museo Bikoitza proiektuko lehen edizioan

Ibon Aranberrik, Museo Bikoitza proiektuaren lehen edizioan aritu den artistak, bere lanaren emaitza aurkeztu du San Telmo Museoan: *Itzal marra*. Obra gaurtik, ekainak 11, aurrera egongo da ikusgai museoan.

Lehen edizio honetarako, Ibon Aranberrik interbentzio bikoitz bat sortu du, museoko funts lekualdatuetatik sortutako material eta estratuez osatua. *Itzal marra* izenburupean, batetik, biltegiratze-sistema gisa eskuz egindako egitura bat berreraikitzen du, eta, bestetik, aurkitutako gainazaletako idazkunen gainean sortutako kalkoen bilduma oso bat aurkezten du. Bat museoko klaustroan egongo da eta bestea oroitarien biltegian (elizako atrioaren ondoan).

Honela azaltzen du artistak bere lana:

“Museo bilakatu zenean, zerbitzu publikora egokitutako azpiegitura funtzional bihurtu zen komentu zaharra. Industrializaziotik sortutako proiektua izanik, aldaketa-prozesuan dauden bizimoduen materialak eta aztarnak gordetzeko zereginari ekin zion, gizarte modernoaren premiei erantzungo zien kultura-kontakizun bat antolatzeko eginkizunean.

Denborak aurrera, zerbait berrikuspen izan ditu bildumak, inventario konsultagarri eta didaktiko baten kondizioa bere egiteraino. Horrela, desmaterializiorantz jo du du museoak, eta, horrenbestez, identifikazioa ez dago jada nahitaez lotuta erregistro fisikoa ukitzearekin, baizik eta erregistroaren arrastoan sartzearekin. Desplazamendu horrek barruko arkitektura hustea ahalbidetu du, erabilera berrien arabera egokituta.

Horrekin batera, biltegiratzeko ohiko guneak deslokalizatu egin dira. Museoaren beraren kanpoaldea osatzen dute gaur egun gordailu horiek. Bertan metatutako materialen zati handi bat aurreko erabilera eta egoeretatik dator. Departamentu bera partekatzen dutenez, kategoria klasikoaren arteko muga differentzialak —hala nola ondarea, bilduma eta kultura materiala— lausotu egiten dira azkenean.

Erreformek ondare-soberakin propioa sortu zuten, zegokion esparrua berritzean edo aldatzean. Azaleratu ziren objektuetako batzuk eraikinaren beraren osagaietatik dator. Lurpean urgentziaz egindako indusketeek pieza gehiago ekarri zituzten. Aztarna horiek metatu egin ziren, antzeko beste aztarna batzuk erakarriz. Azken metaketak museoaren fase historikoak zeharkatzen ditu eta museoaren beraren nortasun ezaugarrietako bat da.

Hilobi-harriak ugariak dira materialen artean, eta biltegien zati handi bat jaten dute. Museoaren beraren iraganetik eta inguruko elizetako lurperatzeetatik dator gehienbat. Higatutako harearrizko lauzen gainean errepikatzen dira aurreko mendeetako merkatarien familia abizenak, hiriaren legatuen gordetegi gisa museora ekarritakoak, lurperatze moduek izan zuten bilakaeraren ondorioz.

Beren orientazio horizontala atxiki zuten hasiera batean erakutsitako hilariek, lurzorutik zerbait bereizita, jatorrizko posizioa adieraziz. Museo politika erkideen ondorioz, politika horiek zirkulazioaren aurretik behaketa lehenesten dutela eta pertzepzio bisuala bultzatzen dutela kontuan izanda, goratu egin dituzte hilarri horiek posizio bertikalera iristeraino, espazioa liberatuz eta aurretiko hurbilketa bat proposatuz. Hiru dimentsioko jatorrizko gorputza azalera lauan murrizten da azkenean.

Metalezko egitura modular bat, iraganean neurrira prestatutako hilarrien meta-leku gisa. Sistema zentralizatu baten eredu, biltegia museoaren beste ingurune batzuekin batera uztartzen zen garaikoa, zerbitzuak kanporatu

aurrekoan. Berreskuratu eta handitu egin da egitura, desmuntatzearen markak atxikita inoiz ere gertatu ez zen etorkizuneko berreraikitze baterako jarraibide gisa. Forma bere horretan aurkezten da orain, erakusketa gunera eramana.

Bestalde, museoaren biltegi bisitagarri berrian jarritako hilariei zenbait kalkatze-teknika ezarri zaizkie, askotariko irudiak sortuz, eta dagokien irudikapenaren pean ezkutatuta geratzen direlarik. Paperak estalitako azalerak biltzen dituzten inskripzioak markatzen eta agerian uzten dituzte kalkoek, irudia lausotzearekin batera. Atlas-arketa osoa gauzatzeko, biltegi osagarriean bereizita dauden unitate eta zatikien kalkoak gehitu dira. Hilarrien gaineko kalkoak ere egin dira, zeinak, beren jatorria museoaren zoruan izanik, beste eskuduntza erakundeek zaindu baitzitzuten, arkeologia gisa sailkatu zirenez.”

## Museo Bikoitza

2018an aurkeztu zuen museoak Museo Bikoitza proiektua, jarraitutasuna ematen diona Asier Mendizabalek 2014an San Telmo erakutsi zuen lanari *-Soft Focus-*.

Museoan egingo den aldizkako esku-hartzeen programa bat da, urtero gonbidatutako artista batek egingo duena (proiektua abiatzeko Asier Mendizabalek Ibon Aranberri hautatu zuen), eta museoarekin lotuta lan egingo du artista horrek proiektu berri baten produkzioan. Helburua da bildumaren eta kontakizun museografikoaren hainbat berrirakurketa ahalbidetzea, artista ezberdinen eskutik.

Lan horren emaitza erakusketa-programaren barruan egongo da eta, ondoren, museoaren arte-bildumari gehituko zaio, egungo une bakoitza San Telmoko bildumaren ondarera eta kontakizunera gehitzeko premia adieraziz, premia hori ordeztu gabe, betiere.

Proiektu bakoitza egiten duen artistak hurrengo proiektuaren aukeraketan, gonbidapenean eta jarraipenean parte hartzen du. Horrela, epe luzera, programaren metatutako emaitza ez da pertsona bakar baten irizpide partikularrera lotuta egongo, eta, aitzitik, museoarekin konprometitutako kolektibitate baten bidez sortuko da, museoan bertan parte hartzearen bidez.

Artistek edukiko dituzten lan esparru posibleak San Telmoren bilduma, museografia, eta testuingurua eta historia dira.

## Ibon Aranberri

Ibon Aranberrik diseinua eta eskultura ikasi zituen EHUn eta Milanoko eskola politeknikoan. Artelekuko tailerretan aritu ondoren New York eta Japoniako zentru ezberdinetan osatu zuen formakuntza. Harrezkero ibilbide oparoa garatu du. Tarteka irakasle lanetan aritzen da eta zenbait idatzizko hedabiderekin kolaboratu izan du. Vienako Secession, Bartzelonako Fundació Antoni Tàpies, Madrileko Museo Reina Sofía, Kunsthalle Basel edota Frankfurter Kunstvereinen izanak ditu bakarkako erakusketak. Talde erakusketen artean honakoak nabarmendu ditzakegu: Región, Fundación Cerezales, Leon, 2018; Histories of a Global Hub, Suzhou Art Museum, Txina, 2016; 16th Sydney Biennale; Documenta 12, Kassel; edota Manifesta 4, Frankfurt. Laster 10th Göteborg Biennialean hartuko du parte.

## Ibon Aranberri presenta *Itzal marra*, la obra que ha desarrollado para la primera edición de Museo Bikoitza

Ibon Aranberri, primer artista que ha participado en el proyecto Museo Bikoitza, ha presentado en el Museo San Telmo el resultado del año de trabajo en el museo: *Itzal marra (Línea de sombra)*. Se podrá visitar a partir de hoy, 11 de junio, en el museo.

En esta primera edición, Ibon Aranberri ha creado una instalación doble conformada por materiales y estratos surgidos de los fondos desplazados del museo. Bajo el título *Itzal marra (Línea de sombra)*, por un lado, reconstruye una estructura manufacturada como sistema de almacenaje, y, por otro, presenta una colección completa de calcos generados sobre las inscripciones de superficies encontradas. La primera de las instalaciones está ubicada en el claustro, la segunda en el almacén de lápidas (junto al atrio de la iglesia).

Así explica el artista su obra:

“Al convertirse en museo, el antiguo convento fue transformándose en una infraestructura funcional adaptada al servicio público. Como proyecto surgido de la industrialización inició la tarea de conservar materiales y vestigios de los modos de vida en proceso de cambio, con la misión de organizar un relato cultural que atendiera las necesidades de la sociedad moderna.

En el tiempo, la colección ha ido prestándose a nuevas revisiones hasta adoptar la condición de un inventario consultable y didáctico. Así, el museo ha tendido a la desmaterialización, de tal manera que la identificación ya no pasa necesariamente por palpar el registro físico, sino por el acceso a su huella. Este desplazamiento ha permitido vaciar la arquitectura interior, acondicionándolo de acuerdo a los nuevos usos.

Paralelamente, los espacios habituales de almacenaje se han ido deslocalizando. Estos depósitos constituyen hoy la exterioridad del propio museo. Gran parte de los materiales allí acumulados proceden de usos y situaciones anteriores. Al compartir el mismo departamento, los límites diferenciales entre categorías clásicas como patrimonio, colección y cultura material acaban difuminándose.

Las reformas generaron su propio excedente patrimonial, al renovar o modificar su ámbito. Algunos de los objetos que fueron aflorando proceden de los componentes del propio edificio. Las distintas excavaciones practicadas por urgencia en el subsuelo aportaron nuevas piezas. Estos restos fueron acumulándose, hasta atraer otros similares. La acumulación final atraviesa las distintas fases históricas del museo y constituye uno de sus signos de identidad.

Entre los materiales abundan las lápidas sepulcrales, ocupando considerablemente los almacenes. Proceden mayoritariamente del propio pasado del museo y de enterramientos en iglesias colindantes. Sobre losas de arenisca desgastada se repiten apellidos familiares de comerciantes de siglos pasados, trasladadas al museo como repositorio de los legados de la ciudad, al evolucionar las formas de sepultura.

Inicialmente las lápidas expuestas mantuvieron su orientación horizontal, separadas levemente del suelo, indicando así su posición original. A consecuencia de las políticas museísticas comunes, que priman la circulación ante la contemplación y favorecen la percepción visual, estas lápidas han ido elevándose hasta

12544n |

adquirir una posición vertical, liberando espacio y proponiendo una aproximación frontal. En ese proceso, el cuerpo tridimensional original acaba reduciéndose en superficie plana.

Una estructura metálica modular, forjada a medida en el pasado como acumulador de lápidas. Es el modelo de un sistema centralizado, de cuando el almacén convivía con otros entornos del museo, antes de la externalización de servicios. La estructura ha sido recuperada y ampliada, manteniendo las marcas de su desmontaje como instrucción para una reconstrucción futura que nunca tuvo lugar. Se presenta ahora como forma exenta, trasladada al espacio expositivo.

Por otro lado, las lápidas colocadas en el nuevo almacén visitable del museo han sido sometidas a distintas técnicas de calco, generando imágenes múltiples, y quedando ocultas bajo su representación. Los calcos marcan y desvelan las inscripciones que contienen las superficies cubiertas por el papel, al igual que difuminan su imagen. Como ejercicio de atlas completo, se han añadido calcos de unidades y fragmentos que se encuentran apartados en almacenes auxiliares. También se han realizado calcos sobre lápidas que, procediendo del subsuelo del museo, fueron custodiadas por otros órganos competentes, al haberse clasificado como arqueología.”

## Museo Bikoitza

El museo presentó Museo Bikoitza / Museo Doble en 2018, dando continuidad al trabajo que Asier Mendizabal presentó en el Museo San Telmo en 2014, Soft Focus.

Es un programa de intervenciones periódicas en el museo que realizará anualmente un/una artista invitado/a (Asier Mendizabal invitó a Ibon Aranberri), quien trabajará en conexión con el museo en la producción de un proyecto inédito. El objetivo es propiciar a una serie de relecturas de la colección y del relato museográfico por parte de artistas del entorno más cercano.

El resultado de ese trabajo formará parte del programa expositivo durante un año para finalmente añadirse a la colección de arte del museo, señalando, aunque no supliendo, la necesidad de incorporar cada momento presente al patrimonio y al relato de la colección de San Telmo.

El o la artista que realiza cada proyecto participa de la elección, invitación y seguimiento del proyecto siguiente. De esta manera, a largo plazo, el resultado acumulado del programa no estará vinculado al criterio particular de una sola persona, sino que se irá formando a través de una colectividad comprometida con el museo por medio de su participación en él.

Los posibles ámbitos de trabajo para la persona invitada son la colección, museografía, y el contexto y la historia de San Telmo.



San Telmo Museoa

### Ibon Aranberri

Ibon Aranberri estudió diseño y escultura en la UPV y en la escuela politécnica de Milán. Tras participar en los talleres de Arteleku completó su formación en diferentes centros de Nueva York y Japón. Desde entonces ha desarrollado una amplia trayectoria. Esporádicamente realiza labores docentes y colabora con medios de comunicación escritos. Ha presentado exposiciones individuales en la Secession de Viena, la Fundació Antoni Tàpies de Barcelona, el Museo Reina Sofía de Madrid, la Kunsthalle Basel, o la Frankfurter Kunstverein. Entre sus exposiciones colectivas destacan: *Región*, Fundación Cerezales, León, 2018; *Histories of a Global Hub*, Suzhou Art Museum, China, 2016; 16th Sydney Biennale, Documenta 12, Kassel; o Manifesta 4, Frankfurt. Próximamente participará en la 10th Göteborg Biennial.

12544n |

SAN TELMO MUSEOA

Zuloaga plaza, 1 – 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 481 580 E. [santelmo@donostia.eus](mailto:santelmo@donostia.eus)  
[www.santelmomuseoa.eus](http://www.santelmomuseoa.eus)

